

“Gorrito ditut emakume literaturari buruzko mahai-inguruak”

Castillo Suarez | Bokaziozko aholku emailea

Begiak hona, belarriak hara, etengabe dabil ideia baten bila. Oso selektoa omen da bere inguruarekin, oso exijentea bere lanarekin. Bere hitzak bala hutsak ez balira, zer?

SUSTRAI COLINA

Argazia: Josu Santesteban

Poeta izatea oso “kitsch-a” da.

Poesia oso genero apartekoa delako. Beti nahi izaten dugu mundua ordenatu, inguruan daukagun guztia kajoitxotan sartu, eta oso genero desordenatua da, bazterrekoa.

Eta zu zer zara, desordenatua ala bazterrekoa?

Oso urduria, ez dut batere pazientziarik. Nobela batek egiteko prest ez nagoen esfortzu bat eskatuko lidake. Ez dut uste inoiz nobela bat idatziko dudarik.

Jakina, errazagoa da “galdera iradokitzaileak” egitea.

Noski. Gertatzen dena da betiko erantzunak eta benetako erantzunak askotan ez direla berdinak.

Betiko benetako galdera: zer eskatzen diozu irakurleari?

Idatzi dudan unean sentitu dudan hori sentitzea prest egotea. Ez diot idatzitakoa literalki ulertzeko eskatzen. Ez zait iruditzen liburu edo poema bat osorik ulertu behar denik.

Eskerrak! Euskal Herrian poesia masa-zaletasuna dela ikusita...

Merkatuarengatik idaztea ez du merezi. Exhibilizismo puntu hori gustatzen zaigulako egiten dugu, egoarengatik. Ez dut uste inor aberastu denik poesia idazten.

Egozentrismoa, exhibizionismoa... Nik uste nuena baino askoz larriagoa da hau!

Seduzitzeko beharra sentitzen dut. Ezin dut saihestu. Nik uste dut uneko test bat egiten ari garela zer neurritaraino garen interesgarriak jakiteko, zer neurritaraino garen erakargarriak konprobatzeko.

Ziur zure lanei egindako kritikak irakurtzen dituzula.

Bai, eta gezurra esango nuke eragiten ez didatela esango banu.

Ulertzen dut gezurrak liburuaren promozio garairako gordetzea.

Kazetariak ez dute zure liburua irakurri. Irakurri dute argitaletxetik eman dieten dosierra, eta beti galdetzen dizute gauza bera. Azken finean, zure liburuaren koartada asmatzea da kontua.

Ez esan kazetariak liburua irakurri gabe galdetzen dizutenik!

Nire kasuan, emakumea naiz, nafarra, poeta... Askotan iruditzen zait niri elkarrizketa egitea kuota betetzeko modu bat dela.

Ez da izango...

Badakit emakumea naizelako deitu izan didatela. Zentzu horretan, ez ditut jasaten, gorrito ditut, emakume literaturari buruzko mahai-inguruak. Ez zaizkit interesatzen.

Gerrarako zaude!

Ni emakumea naiz eta bakea. Iruditzen zait oso inguru interesgarria daukadala, oso maskulinoa izanagatik. Ez dut nahi inork nire lana nabarmentzea emakumea izateagatik. ■